

**OGASUN BATZORDEAREN  
DIKTAMENA**

**2017-11-29**



Esp. kodea: 2016DPRE0001

Gaia: 2018 URTEKO UDAL AURREKONTUA  
Hasiera eguna: 2016-12-13

**OGASUN, DIRUZAINZA ETA ONDARE BATZORDEAREN  
DIKTAMENA  
2017-11-29**

**2018. EKITALDIKO AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSATZEA.**

Alkateak aurkeztutako 2018 ekitaldirako aurrekontuen proiektua aztertu eta eztabaidatze prozesua burutu eta gero, hasiera batean, Batzorde Informatzaile bakoitzari dagozkion kontusailak eta gorabehera nagusiak batzordeetan azalpenak emanda, eta, ondoren, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordean jorratutako prozesuarekin, aipatu proiektua diktaminatu behar da Udal Plenorako.

Gastu atalari dagokionez, proiektu horrek oinarria du udal sailek egindako eskaeretan eta, sarrerei dagokienez, udalak hartutako erabakietan gehi beste administrazioetatik jasotako informazioetan.

Hartarako emandako epean, EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeek hainbat emendakin eta zuzenketa aurkeztu dituzte. Zuzenketa horiek gobernu taldeak aztertu ditu eta batzordean soilik bi (Jaietako kontusailaren dotazioa gehitzea eta Zubillaga hiltegiako inbertsioetarako ekarpenak handitzea) bozkatu eta onartu dira eta, ondorioz, gastu gehikuntza horren kuadrerako mailegu kopuruaren baliabidea (teorikoa) erabilia, txertatu dira aurrekontu proiektuan.

Gainontzeko emendakinekin, Gobernu Taldearen aldetik beste negoziazio/azalpen saiakera oraindik egiteko egonik, kontsideratu da, egoera horretan egonda, ez zuela merezi bozkatzeta eta, ondorioz, erabaki da, behin eskainitako negoziazio prozesu hori bete eta gero, Udal talde Politiko bakoitzak erabakiko duela ze emendakin mantentzen duen Plenorako.

Beraz, Batzordean onartutako aldaketa bi horiek txertatu eta gero, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordean aztertu da 2018 ekitaldirako aurrekontu proiektua, zenbateko hauekin:

**2018KO EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUAK**, jarri dena udalbatzarrak onartu dezan, **Hogeita hamabost milioi sei ehun eta berrogeita bederatzi mila eta zazpi ehun eta berrogeita hamazortzi euro eta hamazortzi zentimo (35.649.758,18 €)**, eta aurrekontu horretan sartuta daude **UDALAREN BERAREN AURREKONTUA**, Hogeita hamabi milioi berrehun eta berrogeita zazpi mila eta berrogeita hamazortzi euro eta hamazortzi zentimo (32.247.058,18€) eta **ITURBIDE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA**, Hiru milioi eta lauhun eta berrogeita bi mila eta sei ehun eta hogeita lau euro eta hogeita zortzi zentimo (3.442.624,28 €).

Aipatutako proiektua (kontusailak, exekuzio arauak eta konpromiso kredituen eranskinak barne) aztertu eta gero, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare batzordean bozkatu da. Botazioaren emaitzaren arabera, Ogasun batzordeak, EAJ-PNVko bi ordezkarien eta PSE-EEeko ordezkariaren aldeko botoekin, EH BILDU eta BALEIKE udal taldeen ordezkarien abstentzioarekin eta IRABAZI udal taldeko ordezkariaren kontrako botoarekin, proiektuari aldeko txostena ematen dio, eta osoko bilkurari proposatzen dio akordio hau hartzea:



---

**Esp. kodea:** 2016DPRE0001

**Gaia:** 2018 URTEKO UDAL AURREKONTUA  
**Hasiera eguna:** 2016-12-13

---

1.- Hasiera batean onartzea 2018ko ekitaldiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu UDALAREN beraren AURREKONTUA eta ITURBIDE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA, aurrekontu bakoitzaren exekuzio arauekin batera, eta udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu eta bidezkoztat jotako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, 15 egun balioduneko epean, jende aurrean erakusteko, iragarkia argitaratzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko aldi horretan erreklamaziorik jaso ezean aurrekontuaren aurka.

Arrasate, 2017ko azaroaren 29an

BATZORDEBURUA